



gatzetan gordeak

Sarrera | Gatzetan gordeak | Elkarrizketak | **'Made in Galiza' liburuz solasean**

'Made in Galiza' liburuz solasean

SECHU SENDE IDAZLEARI ETA TXERRA RODRIGUEZ ITZULTZAILEARI EGIN DIZKIOGU ELKARRIZKETA

Ostirala, 2012-11-23

Sechu Senderen *Made in Galiza* narrazioen liburua kaleratu du Txalaparta argitaletxeak, Txerra Rodriguezek galegotik ekarria. Liburuaz solasean jardun gara egilearekin batetik, itzultzailearekin bestetik. Besteak beste soziolinguintika, ilusionismoa, Galiza motak... eta nola, ez, literatura izan ditugu hizpide.

**SECHU SENDE: Inguratzin nauten afektu eta inteligentzia kolektiboak errepresentatzeko modu bat da niretzat literatura.**

'Made in Galiza' kaleratu berri du Txalapartak, Txerra Rodriguezek itzulita. Kurdueraz ere eman izan da lehenago, kasu honetan euskarara, kasu askotan galegoaren antzeko problematika duen hizkuntza. Zer suposatzen du zuretzat guk euskaraz irakurri ahal izatea?

Imajinatu egun batean nerabe izanik ipuin bat idazten duzula eta idazlea izatearekin amesten duzula. Eta nik... bada, hogei urteren ondoren liburu honi esker Kurdistanera bidaiatu ahal izan dut, Istanbulera, Kroaziara, Birmingham-era, Parisera... eta Euskal Herrira. Baina bidaia hauek uste dezakezuen bano askoz ere gehiago suposatzen dute. Leku hauetara guztietara nire liburuaeren atzetik heldu naiz, eta bai liluratuta ere liburu uestez hain lokala dena, nire tribuarentzat idatzitakoa, nire herriarentzat, munduko beste herri batzuetara tamainako naturaltasunez iritsi izanagatik. Beraz *Made in Galiza* bezalako liburu bat euskaraz irakurri ahal izatea, satisfazio pertsonalaz gain, munduko hizkuntza gutxituen artean eraiki daitekeen komunikazio sarearen –arrazoi eta afektuen sareen- beste adibide bat da.

Bestetik, ni Txepetx-en dizipulua sentitzen naiz. Hogei urterekin Euskadira egindako nire lehen bidaiatik ekarritako albortxi preziatuena izan zen *Un futuro para nuestro pasado* izeneko lana. Liburu horren taupada sentitzen da Galizian. Gainera, jende asko dago Galizian Euskal Herrira edo Catalunyaara begirutzen duena gure arazoentzako irtenbideen bila, eta *Made in Galizian* esportazioak autoestima altakutzen digu apur bat.

Liburua 2007an argitaratu zen, eta bidea egiten jarraitzen du. Nola ikusten duzu orain egindako lana?

Gaszte izanik egun batez galego hitzun bilakatzea erabaki nuenetik beti interesatu zait hizkuntza gatazkaen gaia, ordukit nire zentzu guztiak ditut horretara bideratuta. *Made in Galiza* formazio eta esperientzia personal eta sozialaren hamabost urteren burutzea izan zen, ordukit (2007tik) liburuak etapa hori osatzeko suposatu du, bidean pausatuta nirekin neramana konpartitzeko, eta dagoeneko badira bost urte. Liburuak hainbat gauza aldatu zituen Galizian, niregan, eta hori oso ondo egon zen. Ondoren abenturari jarraipena eman nion, formazioa hartzen eta esperientziak edukitzen. Neofloia naiz eta bide berriak bilatzen ditut. Gatazkak inoiz baino bortitzago eta gizarteratuago irauten duen heinean suposatzen dut liburuak oraina eraldatzen jarraitzen duela. Dena den, Galiza zazpi urteren buruan apur bat ezberdina da eta horrek literatura ezberdin bat eskatzen du.

***Made in Galizak* harrera ona izan zuen Galizian bertan, liburuaren gaia ikusita zer da hori, kontraesankorra ala itzaropentza?**

Nik liburu hau beti ikusi izan dut gizarte organismoak sortutako antigorputz baten moduan. Kasu honetan ni neu, idazle gisa baina batez ere hiritar gisa –irakasle, ameslari, ekologista, txirindulari, eta abar naizen aldetik-, gizarteari egin dioten eraso bati erantzuten saiatzeko tresna bueltatzen diotaren gisan ikusten dut neure burua. Liburuaren harrerak zenikusi handia du horrekin: lehen oritiki hasita igorle oso soziala, kolektiboa, komunitarioa duen sorkuntza kulturala da, nahiz eta idazle bakar batena izan, eta hartzaileari dagokionez irakurle anitz batengana zuzendutakoa, gizartea berdinean baita. Liburuak oso ondo funtzionaltzen du, esaterako, soziolinguistikoki gutxien kontzientziatutako pertsonekin. Nik ez nuen idatzi liburu literatura galegoa irakurtzen dutenentzat, nire herriko hiritarrentzat baizik. Liburu jende askorengana iritsi zen, aldaketaren zentzuak sortzen duen funtzio errebelatzaile eta eraldatzailearekin, neuk gaszte izanik neofalantea izatea erabaki nuenean sentitzi nuen antzeko aldekata.

Eta noski, nahiago nuke hiru urteko alabak hemezortzi betetzeko garrantzia gutxiago edukitzea liburuak, horrek esan nahiko lukeelako gure hizkuntzaren, identitatearen eta herriaren kontrako bortizkeria murriztu dela. Dena den nik beti izan dut argi hizkuntzaren gaia, futbola edo gastronomia nola, gure herrian gaitz iragarria dela bazkalosteetarako, tabernetarako... beraz kontraesanorra behar litzatekeena da telebista edo egunkarietan edo irratietan ez hitz egitea sekula gehiago gaitz horretaz.

Umorea eta ironia darabilkizu, baina beti ere oinarri kritiko baten gainean, eta maitasun askorekin. Umorea literatura egiteko tresna funtsezko gisa defendatu izan duzu. Falta botatzen duzun zerbaite da?

Bai, kuriosoa da, jende askok eta nik neuk elkarrizketaren batean liburuaz mintzo garenean saiakeragile gisa hitz egiten amaitzen dugu liburua ideologizatu. Eta ikaragarri aspergarriak jartzen gara. Eta liburu beste gauza bat da. Asko du alde batetik samurtasunetik eta afektibitateketik eta bestetik, ironiatik, ostia txaretik. Galiza ezagunagoa da –botereari barrura eta kanpora begira proiektatzeko interesatzen zaion irudia delako- saudadearen tradizioagatik, morriñagatik, elegiagatik. Animoaren egoera depresibo bat. 'Pausu bat aurrera edo bi atzera, Galiza', esaten zuen poeta batek. Baina bada beste Galiza bat ere, 'retranca'ren tradizioarena, errebeldea, intsumisioa, borrokalaria. Diskurtso mota hori da XIX. mendeko 'escarnho e maldizer' kantiqetan dagoena, Castelaon dagoena, frankismoan dagoena, Nunca mais gatazkan zehar egon zena eta egundaino iristen dena. Castelaok esaten zuen: Mexan por nós e dicimos que chove. **O Leok**, punk kantari batek, gaurkotu egiten du: Mexan por nós e nós cagamos por eles. *Made in Galiza* umorea jotzen du umore soziala delako erresistentzia sozialaren ezinbesteko tresna bat, sormen kolektiborako eta une historiko katastrofikoak gaintzen saiatzeko, suntsipen eta bortizkeria ureau, munduko herri askotan ikus daitekeen moduan. Bizitza eta heriotzaren arteko tentsioa.

Esaterako, anekdota bat. Nire testuetako batek honako titularrak ekarri zuen La Razon-en: "Las obscenidades también en gallego". Eta zeren artikulua zinean nire kontra egiten zuten, Madrilan jende horrek ez duelako ideiarik ere "retranca" azpi den, ez dakitelako mundua ironiatik deskodetzen. Honaka bezalako gauza surrealistak idatzi zituzten: 'Un tour a estudiantes anima a decir procadidades en ese idioma al hacer el amor' ['Drogen eraginpean dauden gaszteen inguruko ikerketa soziolinguistikoa' ipuinari erreferentzia eginez]. Gehiago jakin nahi duenarentzat, **HEMEN** lotura.

Lan honetako narrazioak laburrak dira, hainbat tonu eta estetika darabilkizu (gidoiak izan litezkeen elkarrizketak, narrazio batzuen izaera fantastikoa...). Senari jarraitu zenion idazterakoan, edo hainbat estiloetatik ibilbidea egiten saiatu zinen?


Liburuak asko du bat-batekoanaz eta sormen delirioaz eta apur bat planifikazioaz. Liburuak, bere dimentsio kolektibotzat, ahotz narrazatze asko eskutzen zituen eta berez askoz gehiago nituen; berrogei hauek berrehunen arteko selekzioa izan ziren, haietako asko amaitu gabeak. Esperimentazio asko egon zen, eta ahozkatasunarekiko konfiantza asko. Adibidez, liburu tonuetako bat iratigintzan izandako esperientziak eman zidan, lagun baten umore saion egindako lehen kolaborazioaren ostean lagun horrek esan zidan: Sechu, zelako tostioia bota duzun. Hurrengo egunean liburuaren lehen kontakizuna izango zena idatzin nuen, bost-sei urteko haur baten ahotsean beste kide batek irakurri zuena. Beste narrazio batzuk surrealismoetik heldu ziren, mundu paranormalek, publikitatek, poesiatik, beste bat film labur bat egiteko pentsatua zen... moduren batean gure garaiko ezaguri hori dauka: alde batetik zatikatzea eta dispersioa, bestetik ihes egiteko eta batasuna lortzeko beharra.

Literatura gai zehatzak esploratzeko modua izan daiteke, soziolinguistikak bezalako arloak jendeari beste modu batean gerturatzeko?

Kontua ez da liburu hau –edo beste sorkuntza kultural batzuk- interbentzio soziolinguistikoaeren emaitza izatea. Gertatzen dena da liburu hau sortzen delako beste inguruzko sozial batean zeinena literaturak ez duen parte hartu beste erremediokir. Baina ez normalizazio plan baten barruan, ez ezer antzekorik, sorkuntza esperientzia total batena baizik, sorkuntza bulkada erradikalak. Gatazka politikoak, kulturalak, identitarioak bizi ditugun gizarteok, Galiza edo Euskal Herria edo Kurdistan bezala, estatirik gabeko nazioen gatazka, historia osoan zehar idatzi diren maitasuna eta heriotza bezalako gaiak gain beste hainbat kontu ditugu esateko. Noski, estatu handietako literaturak ez dira sekula kezkatu zanpatutako herrien auzekin. Nik literatura ikusten dut inguratzin nauten afektu eta inteligentzia kolektiboak errerepresentatzeko modu bat bezala, neurri handi batean originala, amestua, asmatua eta idazketaren uean eraikia izanik ere sorkuntza kolektibo prozesu bat sor lezakeena irakurria izateko orduan, eraldaketa soziala eztean batean. Baina hau gai hauekin eta beste batzuekin gertatzen da hori.

***Made in Galiza* alberta zenuenetik jarraitu duzu publikatzin, narrazioa, poesia, antzerkia... zen unetan dago Sechu Sende egun?**

Nire anaiekin nabil gure Arkakusoen Zirkua berritzen, Galiza Pulgas Circus; Kurdistanera egindako bidaiaren inguruan liburu bat prestatzen; Courel mendiarri buruzko bidaia liburua egiten; lehenengo galegoeskola autogestionatuan parte hartzen, Escola Semente; narrazioak idatzi eta idatzi nabil eta noizean behin poemaren bat ere; mugimendu sozial galegoetan parte hartzen; soziolinguistikak ilusionismoa eta telepatiarekin izan dezakeen harreman arakatu nahian, horrekien show moduko ikuskizun bat sortzeko, ahozkatasunaren, magiaren eta ilusionismo soziolinguistikoaeren pisu handiarekin; ahal duen guztia irakurtzen, batez ere lan lusofoanoak, afrikarrak, eta oroz gain denbora gehien hartzen didana: nire bi alabak nire uestez XXI. mendeko aita batek eduki behar lukeen ardurarekin hezten, hiru urte bata bi hilabetekoa bestea; horrek oso-oso denbora gutxi uzten dit arretuko guztia edo beste adozten proiektu egin ahal izateko. Eta oso ondo daramat. Gizon guztiok jakin behar genuzakeen guztea asko ari naiz ikasten.



(Argazkia: Berria)

TXERRA RODRIGUEZ: Erroka nagusi bat izan du itzulpenak: soziolinguistikaz berba egiten duen liburu da eta egileak asko jolasten du hizkuntzarekin, hizkuntza moldeekin, hizkerarekin.

Nola sortu zitzaizun proiektu honen ideia?

2008an irakurri nuen liburua eta ipuin batzuk itzuli nituen. Baina orduan ez neukan liburu osoirik itzultzeko asmorik. Kurduerara itzuli ostean, esan nion neure buruari: kurdueraz egin bada, euskaraz zergatik ez? Eta orduan hasi nintzen itzultzen serio. Iaz ere udan Galizian izan nintzen eta horrek ere bultzatu mezu itzulpen lanari.

Liburua 'Maite zaitut' poemarekin hasten da, zeinak 2012ko data duen. Egileak edizio honetarako sortu duen testua da?

Ez, ez da edizio honetarako sortutako testua. Sechuk bere blogean eman zuen argitaratua poema eta niri iruditu zitzaidan polita *Made in Galizako* euskarazko bertsiorako. Sechuri esan eta berak ere oso egoki ikusi zuen poema hori euskarazko *MiGn* argitararen emateko.

Hizkuntza du liburu honek nagusi, gailuzera bultzeko orduan sortzen diren horroak, egoera surrealistak, kontraesanak, ametsak. Euskal hitzunak eta irakurleak ondo baino horobeto ezagutu dituen gaiak. Ez gabiltza liburu honetako edukietatik urrun, ezta?

Ez, kasu askotan gainera galiziera kendu eta euskarara jarrita eta egoerak berdinak dira. Horixe izan da liburu hau gurea ekartzea bultzatu nauena. Hangoen bizipenak, kezkek, ametsak, borrokak eta gatazka hemengoen oso-oso antzekoak dira, salbuespenak salbuespen. Gainera, gutxiak orokor ezezagunak Galiziako egoera soziolinguistikoa eta literatura bide polita da bi herrien arteko hizkuntza bizipenak konpartitzeko.

Zeintzuk izan dira errokaririk handienak liburu hau itzultzerakoan?

Erronka nagusi bat izan du itzulpenak: soziolinguistikaz berba egiten duen liburua da eta egileak asko jolasten du hizkuntzarekin, hizkuntza moldeekin, hizkerarekin. Jolas eta jolas. Aritu du liburuaren zehar, askotan bigarren esangarrik iradokiz, beste batzuetan bestelako figurak erabiliz. Eta horiek gutzian gahera ekartzea zaila izan da. Era berean, horietako jolas asko egiteko ere galizierak abantailakoa dauka, gaztelaniatik oso hurbil dagoen hizkuntza delako. Julea, ordea, gaztelaniatik nahikotxo aldentzen den hizkuntza izanik, gaitzagoa da horien moduko hitz jolasak egitea. Zailtasunak zailtasun, ez dut ueste irakurriko duen inork zailtasunak izango dituen hitz jolas horiek harrapatzeko.

Umorea eta ironia ugari du liburuak, zentzu bikoitzak... Zure lanetik lan berezia egin behar izan duzu umorearen ezagariak moldatzeko?

Euskarazko moldeak natural egitea izan dut helburu itzulpen osoan zehar. Pentsa, sei biderrez zuzendu dut itzulpenak (gehi beste batzuek lortu dituzten eurenak). Mila buelta eman dizkiek hainbat panteo, euskara naturala lortzeko asmatan. Lana ekarri du, lan handia, baina emaitza ikusten oso pozik nuen, itzulpenarekin oso gustura. Merezi izan du, eta orain arte liburu irakurri dutenek gehien azpimarratu duten kontuetako bat izan da euskarazko testuaren gozotasuna. Horrek poztu egiten nau, zeharo poztu ere.

Prozesuan harremanik izan duzu berarekin, egon da nolabaitko elkarrizketak?

Itzultze prozesu osoan harremanetan izan gara Sechu eta biok. Liburuan zehar hartutako erabaki guztiak berarekin euskararatu ditut. Adibidez, Madritik ipuina gaztelaniatzat itzuli, liburuak gaztelaniatzeko zaitxoak ez itzultzea, Batakat Herriko erreferentzia batzuk tartekatzea zenbait ipuinetan eta abar. Nire uestez, eta ahal den neurrian, egilearekin batera lan egitea da egokiena itzulpenetan.

Soziolinguistikaren gaiak hiltzen die egileak literaturatik, saiakeretan ez ohikoak diren tonuak eta bideak erabiliz. Bide interesgarria izan daiteke hori, zure uestez, hainbat gairen inguruko gogoetak, eztabaidak eta ideak zabaltzeko?

Soziolinguistikan aritzen naiz izanik, soziolinguistika aplikatuen hain zuten ere. Eta beharrezkoak dira ikerketa sakonak, beharrezkoak ikerketa aplikatuek eta beharrezkoak diskurtso teorio sakonak. Baina, era berean, ezinbestekoa da horien gutziren dibulgazioa egitea, adituen artean ez geratzeko, are gehiago hizkuntza mugimentera biziberritu nahi badugu. Dibulgazioa mugimentera mila modu desberdin, mila modu. Eta horietatik bat literatura da, ipuingintza nahi bada. Bide oso eraginkorra izan daiteke (beste bide batzuk bezala) eta erabili egin behar da, zentzuz. Gainera, umorea gutxi erabili izan da gure gertaeren berri emateko, gure hizkuntzaren bizitza adierazteko. Agonia asko erabili izan du esan guren. Ez dut esan behi den erabili behar. Baina behin eta berriro horretatik jo behar da? Beti horiekin ekin behar? Beste biderik ez dugu sekula urratuko, apur bat bada ere? Iruditzen zait mila eta bostehun bider abiatu behar dugula bide horietatik, probatu, asmatu, edo ez asmatu, estropezu egin, altxatu, berriro probatu eta abar ...

Dibulgazioa egitea ezinbestekoa zaigu euskaideenoi. Hiztun munduan ahalak duenak, botereadunak, harroak eta autoritaterak nahi ezinbesteko, dibulgatu behar ditugu euskaldun horiek jantzeko, euskaideen horiek jabeartzeko.

Zera diozu hitzaurrean: 'Izan ere, euskaldunok, hizkuntza kontuetan betiere, lepora ekialdera bihurtzen dugu gehienetan. Gure ispilua ez da izaten askotan menduakaldeen dagoen herri galiziarra, nahiz ekarrekine ametsak herri ederra den'. Zer dugu komunean? Zer dugu ikasteko?


Komunean gauza asko ditugu, baita ezberdintasun nabarmenak ere. Nik bi azpimarratu nahiko nituzke, bi antzekotasun handi.

Batetik, hizkuntza gutxitu gehienetan aurreiritziak eta estereotipoak oso ohikoak izaten dira. Baina harrigarria da galizierazko eta euskarazko hiztunok jasan behar ditugun aurreiritziak berdinekin direla: baseritarkeria, hizkuntzaren gaineko erabilgarritasunaren faltzuak, gutxietspena, auto-gorrotoa, paternalismoa, ...

Beste alde batetik, hirien egoera soziolinguistikoa han eta hemen oso antzekoak dira. Vigo eta Coruñaeko egoera Bilbo, Iruñea, Baiona edo Gasteizko egoera berdintasua da. Erabilera oso baxua, gaszteak jakin bai baina erabili. Ez baserri giroan, ordea, han eta hemen egoera antzekoa bada ere, ezberdintasunak badaude. Gainera, historikoki han eta hemen bertako hizkuntza erabili izan dutenak beti izan dira klase apalak (edo apalenak) eta horren islak gaur egun arte heldu dira.

Ikasteko gauza asko dugu, baina batez ere elkarrekin ikasteko, gu haiengandik eta haietik gungandik. Ez dut inorsten maisukerietan, ez dut inorsten guk haietik irakatsi behar diegunik, ezta alderantziz ere. Baina antzeko egoerak bizi dituzten herrietan ikasgai asko daude, alde batetik zein bestetik. Horietan sakondu eta elkarrekin bidetxea egin beharko genuke.

BIDEOA



Jokin Zaitegi Sariketaren bitartez, Nobel saria jaso duten idazleen lanak euskaratzen dira. Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxearen ekimena da hau, eta Kutxa dute bidelagun. 2011n Tomas Tranströmer poeta suediarra izan zen Nobel saria jasotzeko. Juan Mari Aguirreurreta arduratu da itzulpenaz eta Xila Pihlström aritu zela aholkulari lanetan. "Bizientzat eta hilentzat, poema guztiak 1954-2004" izenburupean argitaratua izan da liburua. Ondoko bideoan, Aguirreurreta itzultzailea da poeta suediarraz mintzo dena.

AGENDA

Gari Garaialderen 'Zu ikusteko bidean' liburuaen aurkezpena
Liburu-aurkezpenak
2012-11-23 | Donostia

Yoseba Peñaren 'Hodeien adorea' mintzagai
Liburu-aurkezpenak
2012-11-23 | Ea

'Atzerri' liburuz solasean
Irakurle taldeak eta klubak
2012-11-26 | Donostia

Ataramiñe-k liburu berrien aurkezpena
Liburu-aurkezpenak
2012-11-27 | Bilbo

Karmeñe Jaioaren liburu berrien aurkezpena
Liburu-aurkezpenak
2012-11-28 | Donostia

'Beste norbaiten zapatak' Baztanen
Irakurle taldeak eta klubak
2012-12-11 | Baztan

Agenda osoa ikusi